

Agur



ANDONI MUJIK A ULAZIA
IRAKASLEA

Agur esan nahi dut txukun samar, eta ez dakit ondo nola egin.

Tira. Duela hamasei urte, Letonak egin zidan gonbita ARGIAN idazteko. Izugarritzko poza eragin zidan, ze une hartan, autoestimua ez neukan oso sendo. Izan ere, garai latzak bizi izan genituen ikastoletan aurreko sei urtetan zehar, eta gertakari haiek, nire orbanak zabaldu egin zituzten. Eta egoera hartan, eskaintza hura sinestea ere kostatu egin zitzaidan, eta horrela galdetu nion:

– Hi, Xabier, ziur al hago?

Berak, ez dut gogoan zehatz-mehatz zein hitzekin, horrelako zerbait erantzun zidan:

– Proposatzen badiat zer edo zeren-gatik izango duk.

Harrezkero, ARGIAren ispilu honetan ibili naiz erakusten nire barruan egon diren kezka eta ikuskerak. Eta gaurko artikulua osatzeko gida ere hortxe bilatu dezakedala pentsatu dut, urtetan jorratu ditudan eremuetan. Horretarako, erakusleho honetara ekarri ditudan gaiak erreskatatzen ibili naiz azken egunotan. Eta emaitza da jakin-min arloak ez direla hainbeste izan. Hemen sintesia:

ARGIA-ren ispilu honetan ibili naiz erakusten nire barruan egon diren kezka eta ikuskerak. Eta gaurko artikulua osatzeko gida ere hortxe bilatu dezakedala pentsatu dut, urtetan jorratu ditudan eremuetan

Autoeraketa. Garden ikusten da, aiez-ale, pentsamendu hori dela nire konstante nagusia, beste hainbat gairen kokapen eta azalpen lekua. Beraren baitan, eta berari esker ulertu izan dut, besteak beste, pertsona eta komunitateen garapena, gizarte eraldaketa, egiazko ahalduntzea, errealitatea eta utopia konbinatzeko aukera eta, baita, demokraziaren espresiorik gorena ere.

Kooperatibismoa eta garapenerako lankidetzak. Artikuluaren joan-eto-

rrian nabaria da bi gai hauek ere mirestena eta interes izugarria piztu izan didatela, batez ere, nire lehen urteetan. Azken boladan, ordea, errespetua eta errekonozimendua bai, baina batzuen-ganako dezepzioa ere ikusten da.

Ikastolak. Askotan nabarmentzen da idatzietan ikastolen esperientzia. Batez ere esateko, herrigintza eta autoeraketaren eremuan, herri honek daukan praktika erakusgarriena dela. Gora-beherak gorabehera, gizartean txertatuta eta berarekin igurtzian dagoen errealitatea da ikastolena.

Abertzaletasuna. Politika orokorrekiko nire interesa ere angelu horretatik eratorritakoa dela ikusten da. Horren atzean, nagusiki, sentimendu bat eta desio bat eduki izan ditut: Espainiarekin eta Frantziarekin berdinetik berdineraren harremanak izateko nahi garbia eta askatasun egarria.

Erroka pertsonalak eta barne garapena. Tarteka, bikotea, maitasuna, gorabehera pertsonalak eta sentimenduei ere tokitxo bat egin diet.

Besterik ez, eskerrik asko Asurmendiren zaintzari eta irakurleei. ●

 **ARGIA**

ZURE JENDEA
HEDABIDEAK
IRAGARKIA



Jarri zure
publizitatea
hemen!

publiz@argia.eus
943 37 15 45
argia.eus/tarifak